



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES**

1814

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Behean sinatzen dugun talde parlamentarioek ERDIBIDEKO ZUZENKETA hau aurkezten diote Vladimir Putinen erabakiz Errusiak Ukrainaren aurka egindako inbasio eta eraso armatu gaitzesteari buruzko presako legez besteko proposamenari 12\11\02\01\00352

ERDIBIDEKO ZUZENKETA

“Eusko Legebiltzarrak argi eta garbi salatzen eta kondenatzen du Errusiaren Ukrainako inbasioa eta herrialde burujabe baten aurkako indarra erabiltzea, zeina beren-beregi bazterten baita dena Helsinkiko Azken Aktaren 1.a). II artikuluan (Europako Lankidetzeta eta Segurtasunari buruzko Konferentzia) eta Nazio Batuen Gutunaren 2.4 artikuluan.

Europar Batasunari eta estatu kideei eskatzen die indar ditzatela Vladimir Putinen eta laguntza ematen dion inguru guztiaren aurkako zigor ekonomikoak Ukrainako gerra eta sarraskia lehenbailehen amaitzera behartzeko.

Eskatzen du iker daitezela gerrako eta gizateriaren aurkako krimen guztiak Nazioarteko Zigor Auzitegian edo beste jurisdikzio eskudun batzuetan pertsegitzeko eta epaitzeko.

Nazioarteko estamentu guztiei gonbita egiten die Ukrainaren inbasioan eragindako gerrakalteak ebalua ditzaten eta Vladimir Putinek eta bere konplizeek Errusiatik beste herrialde batzuetara atera duten diruarekin ordain dezatela.

Berresten du herrialde guztiek beren lurralde-osotasuna babesteko duten eskubidearekiko begirunea, lurralde-osotasun hori ezin daitekeela ahuldu hurbiltasun geografiko, kidesun etniko edo hizkuntza-kidesuneko arrazoiak direla medio, Helsinkiko Azken Aktaren 1.a) I eta 1.a). IV artikuluei jarraituz.

Bere konpromiso irmoa adierazten du demokraziaren printzipioekin, zuzenbide-estatuarekin eta funtsezko eskubideen babesarekin, zeinak jasotzen baitira Ipar Atlantikoko Itunaren hitzaurrean, Europar Batasunaren eraketarenean eta Nazio Batuen Gutunean.

Babesten ditu Espainiako Gobernuak, Europar Batasuneko eta NATOko bere aliatuekin batera, estatu burujabe eta demokratiko baten inbasio gaitzesgarri honen berehalako amaiera lortze aldera egindako ekintzak.

Espainiako Gobernuari eskatzen dio etengabe informatu ditzala alderdi politikoak indar politiko guztien artean lor daitekeen elkarlanik zabalena, lasterrrena eta arduratsuena lortze aldera.





Agintari eskudun guztiei eskatzen die areagotu ditzatela beren ahaleginak ahalik eta goizena emateko aldi baterako babesa eta Europako direktiban ezarritako bizileku- edo lan-baimenak, zeinak urgentziaz behar baititu errefuxiatutako populazioak.

Bere babesa eta elkartasuna adierazten die Ukrainari eta Ukrainako herriari, bai eta Euskal Herrian bizi diren 3.000 ukrainarrei ere. Horregatik, Gobernuari eskatzen diogu Bruselan negoziatzea dezala Ukrainako populazio zibilarentzako giza laguntzako plan bat, bai eta gerratik ihes egiten ari diren ukrainar errefuxiatuak masiboki hartzeko kontingentzia-plan bat ere.

Eskatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztien elkarlana lagundu dezaten, haien eskumen eta baliabideen arabera, gerratik ihesean datorren populazioa hartzeko.

Azkenik, euskal gizarteari eskertzen dizkio Ukrainako herriarekin erakutsi dituen elkartasuna eta txera, bai eta legez kontrako inbasio honen biktimei babesa eta aterpe emateko herri honetako milaka familia, kolektibo eta herritar egiten ari diren ahaleginak ere".

Gasteiz, 2022ko martxoaren 17a

EUZKO ABERTZALEAK

EUSKAL SOZIALISTAK

EUSKAL TALDE POPULARRA-CIUDADANOS

